

o

MIXEL LABEGUERI

Mixel Labeguerie 1921ean Uztaritzen sortu zen, Lapurdin. Toulousen hil zen, Frantzia, 1980an. Amarengandik musikarekiko zaletasuna hartu zuen.

Fraideen ikastetxe batean ikasi zuen.

Hilario Olazaran fraidea Lekarozetik Uztaritzera eraman zuten eta harekin ikasi zuen txistua jotzen.

Mediku ikasketak egin zituen Bordelen. Han "Irrintzi" izeneko kanta-dantza sortu zuen. Hego Euskal Herrian gerra izan zenean, hemendik ihes egindako hainbat errefuxiatu ezagutu zituen eta parte hartu zuen Franco eta nazien kontrako espioi lanetan. Politikaria izan zen.

Euskal Kantagintza Berriaren sorreran bere ekarpena arras garrantzitsua izan zen. 60ko hamarkadaren hasieran bere kanta hasi ziren ezagutzen.

Baionako Goiztiri diskoetxeak eman zuen argitara bere lehendabiziko diskoa. Lau kantu zituen: "*Bakearen urtxoa*", "*Gudari euskaldunen kantua*", "*Aurtxo aurtxo*" (Piarres Larzabalen hitzekin) eta "*Primaderako liliak*".

Bertze kanta ospetsu batzuk: Nafarra oi nafarra, Gu gira Euskadiko gaztedi berria...

Kantua "Gure gata pitxitxi":

<https://www.youtube.com/watch?v=77DxfZAI9iM>

Gure gatura pitxitxi (Letra)

**Ez du uzten supazterra
badu lephoko superra
da gizen bezain ederra
iduri du kalonjerra**

**Gure gatura Pitxitxi,
da dena ilhe ta txitxi.**

**Eguna derama lotan
ase ondo ametsetan
iduri du bai egitan
kalonjer bat bezperetan**

**Gure gatura Pitxitxi,
da dena ilhe ta txitxi.**

**Jaun kalonjerra, barkatu,
zuri baitut konparatu
Pitxitxik iliak baditu
ez zaio kaskoa pelatu**

**Gure gatura Pitxitxi,
da dena ilhe ta txitxi.**

**Lana baitzaio itsusi
ez du ihizin ikasi
saguño bati ihesi
nihaurk atzo dut ikusi.**

**Gure gatura Pitxitxi,
da dena ilhe ta txitxi.**

**Pitxitxi hiltzen delarik
ez baitu egin gaizkirik
zazpi izpirituetarik
bat baduke salbaturik**

Gure gatura Pitxitxi,

da dena ilhe ta txitxi.

**Nola bizi den lur huntan
hala gatuena zerutan
biziko da ametsetan
sekulorum sekulotan.**

**Gure gatura Pitxitxi,
da dena ilhe ta txitxi.**